

BITARTEKOAK	
SALDUKO DAN ONDAREA	PREZIOA (milioi pezeta)
1. ZERRENDA (1998ko urriaren 8a)	
Eraikinak	
Gregorio de la Revilla, 25	150*
Concha Jenerala, 46	6
Orubea, Errekaldeberri, 26	25*
Lokalak	
Aita Larramendi, 1 eta 3	70
Diputazioa, 4	335
Bulegoak	
Egaña, 18	75
Kaputxinoen bidea, 2, 4 eta 6	3.722
Errekalde zumardia, 50	397
Ibañez de Bilbao, 2	30
Mazarredo, 63	342
Bulegoetarako eraikin osoak	
Errekalde, 30 eta Iparragirre, 21	3.090
Orueta Gotzaina, 6	744
Gran Via, 26	800
Ibañez de Bilbao, 20	1.047
Etxeak egiteko orubeak	
Arbieto eta Diputazioa	277
**Lehendakari Agirre	1.658
Garaje plaza batzuk	76
2. ZERRENDA (2000ko zemendikoa)	
Jose Maria Eskuza, 16	275***
Gordoniz, 7	21***
Iparragirre, 46	490***
Errekalde zumardia, 18	27
Lersundi, 9	Tasatu barik
Urkijo zumardia, 28	Datu barik
Luis Briñas, 21	21
Mazarredo zumardia, 22	Datu barik
* Salduta. **Gero kendu egin zan, orube hori erabiltzea Aldundiaren esku ez egoalako. *** Inbentarioko balioa.	

'ZERO KOSTUA'

EHren ustean, Abandoibarrara joanda, Aldundiak galdu egingo dau, ondare gitxiagogaz geratuko dalako

egin erabagi. Aldundiak espero dau hor dagozan edukiontzia 2002ko abendurako beste leku batera eroango dabezala. Halan balitz, dorrea eregiteko beharrak 2003ko udan hasiko litzakez.

Dorrearen banaketa

Aldundia hasita dago Abandoibarrako dorreko espazioa zelan banatuko daben zehazten.

Lurpean, dorrearen 22.575 metro koadro egongo dira; horretako 17.500 aparkalekuetarako izango dira.

Ikusiko diran 30 solairuek, oster, 60.173 metro koadro izango dituez. Gehien-gehienak, barruko zerbitzurako erabiliko dira: 48.193, dala beharrerako (23.720 metro koadro), dala batzarretarako (2.765), dala batzarkide eta goi kar-



JOSU ETXEBARRIOSTE
Abandoibarrako dorrea eregiteko beharrak ez dira 2003a arte –gitxienez– hasiko.

FINANTZAZINO ESTRATEGIAK

BBK da aukera

Aldundiak finantza erakunde bati baino gehiagori eskatu deutso finantzazinarako proposamena egin deion: BSCH, BBVA, BBK eta Price Waterhouse-k erantzun eutsen eskaerari. Azkenean, BBKrena hobetsi dau Aldundiak. Horretan, tasazio barria egin dabe, eta prezio handiagoa ipini Aldundiak saldu gura dituan eraikinei. Eskaintzak 5 puntu ditu: lehenengo eta behin, peritazino barria egin dau BBKk, eta, esan dan lez, Aldundiak lehenengo egin eban peritazinoa baino altuagoa da. Bigarren, eraikin batzuk ezin diranez, saldu arren, segituan hustu —zerbitzua emon egin behar dalako, eten barik emon be— peritazino horretatik abiatuta, *Oinarrizko prezioa* ipini dau BBK-k. Zenbat eta beranduago hustu eraikina, orduan

guendako (3.468 metro). Herri-tarrei harrera egiteko, barriz, 4.915 metro koadro gordeko dira Abandoibarrako dorre barrian.

Guztira, Aldundiak egindako kalkuluen arabera, 84.298 me-

eta alde handiagoa, beheruntz, peritazinoaren prezioaren eta *oinarrizko prezioaren* artean. Hirugarren, salmenta segmentuka egitea proposatzen dau BBKk: eraikinaren balio eta ezaugarrien arabera, enkantean atara, ala eskaintza zehatzen bila eginda jo, erosle potentzialak topatera. Laugarren puntua garrantzitsua da, BBKk parte zuzena hartuko dabelako operazinoan: oinarrizko prezioaren %90 segurtatu egingo deutso Aldundiari. Halan egitean, proiektu osoaren bideragarritasuna segurtatuta dauka herri erakundeak, salmenta eta merkatuaren gorabeheretatik kanpo. Ganera, azkenean gainbalioa lortu ezker, horren %60 Aldundiarendako izango litzateke, eta %40 BBKrendako. Azkenik, BBK-k lekualdaketa osorik finantzatzeko eskaintza egin dau: salmentaren ostean dirua beharko baleu Aldundiak, BBKk aurreratu egingo leuskio.

tro koadro beharko dira Abandoibarran.

'Zero kosturik' ez dala dino EHk

1998ko erabagian egin eban Aldundiak *Zero kostearen* ganeko lehenengo aipamena, finantza-

zinoa ondarea salduta lortuko zala esanda. Aldundiak, gaur egun be, eritxi bera dauka Abandoibarra eregiteko beharko dan dirua lortzeko bidez: ondarea saldu. EHko kide Txema Picok zehaztu gura izan dau

DIRU KONTUAK

Aldundiak ez deutso BIZKAIAri ez baiezkorik ez ezezkorik esan gura izan, finantzazinoaren arloaren ganean

FINANTZAZINO

Beste erakunde batzuei be eskatu eutsen arren, Aldundiak BBKren erantzuna baino ez dau jaso

DORREA

Zerbitzu guztiak Abandoibarrara eroanda, Aldundiaren dorreak 30 solairu eta 85.000 metro koadro eukiko ditu

gaia: «Aldundiak behin eta barru errepikatu dauan *Zero kostua* ez da, inondik inora be, halan izango». Baieztapen hori arrazoitzeko, EHko batzarkideak adibide bat ipini deutso BIZKAIAri: «Pisu baten jabe bazara, eta lagun bat, oster, txalet baten jabe bada, zuen jabetza horreek alkarregaz trukatu ezker, lagunak galtzen urtengo dau, trukea egin ostean bere ondarea txikiagoa izango dalako». Antzeko zeozer gertatuko litzateke, Picoren esanetan, «15.000 milioi pezetako balioa izango ei daben dorrea eregiteko, Aldundiak balio horren ganetik dagoan eraikin eta orube multzoa salduko baleu». Eta halan gertatuko da, «denpora tarte txikian eskaintza handia egiten bada, logikak eskatzen dau prezioek behera egitea», beti be EHko kidearen ustean. Aldundiak pisuak eta bulegoak saldu gura ditu, tartean, «Ogasun eta Finantza sailak Azokalekuaren inguruan daukan eraikin bat. Aldundiak, lehenengo egindako tasazioan (1998an), eraikin hori 3.722 milioi pezetatan saldu eitekela aurreikusten eban. Baina Aldundiak berak, bere ondarearen inbentarioa egitean, oster, eraikin horrek 6.192 mila milioiko balioa daukala inoen. Hori ez da *Zero kostua* izatea», azpimarratu dau Picok. Horregaz batera, EHko batzarkideak salatu gura izan dau «gero eta eraikin eta ondasun gehiago saltzea aurreikusten dauala Aldundiak, Abandoibarrako dorrea eregiteko: halan jarraitu ezker, batek daki, azkenean, zenbat ondasun saltzea erabagiko dauan». Izan be, hasieran onartu ziranez aparte, beste batzuk saltzea onartu barri dau Aldundiak (2000ko zemendian).